

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Santurtziko Udala**

«Kontratazioetarako laguntza ekonomikoak» Proiektuaren oinarri arautzaileak, Santurtziko udalerriko enplegu-planaren esparruan.

**KONTRATAZIOETARAKO LAGUNTZA EKONOMIKOEN OINARRI ARAUTZAILEAK
2018KO EKAINAREN 13KO LANBIDE —EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA—DEIALDIAREN
ESPARRUAN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO****1. Araudi erregulatzailerak**

- 2018ko ekainaren 13ko Ebazpena, Lanbideren —Euskal Enplegu Zerbitzua— zuzendaritza nagusiarena. Horren bitartez, enplegua sustatzeko tokiko laguntzei zuzendutako deialdia argitaratu da (EHAA 2018ko ekainaren 20, 118. zenbakia).
- 2018ko urriaren 3ko Ebazpena, Lanbideren —Euskal Enplegu Zerbitzua— zuzendaritza nagusiarena. Horren bitartez, Santurtziko Udalararen diru-laguntza bat eman zaio Enplegua sustatzeko tokiko ekintzei zuzendutako deialdiarekin bat eginez (EHAA 2018ko ekainaren 20, 118. zenbakia).
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (EAO 2003ko azaroaren 18).
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

2. Xedea

Jarduketan honen helburua enpresa-sarea bultzatzea eta enpresa-sareari laguntza ekonomikoa ematea da. Hori guztia Santurtziko langabetuak eta Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzailerak bezala izena emanda dauden pertsonak ohiko merkatuan kontratatzea sustatzeko, Enplegua sustatzeko tokiko ekintzei zuzendutako deialdiarekin (EHAA 2018ko ekainaren 20, 118. zenbakia) eta Santurtziko udalerriko Enplegu planarekin bat eginez.

Ondorioz, oinarri hauen helburua itzuli beharrik gabeko laguntzen ematea arautzea da lan-kontratuak gauzatzeko. Lan-kontratu horiek mugagabeak edo iraupen mugatuak izango dira eta Gizarte Segurantzako araubidearen egongo dira. Hala, kontratuak 4. puntuaren adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten pertsona langabetuei egingo zaizkie.

Gutxienez 3 hilabeteko eta gehienez 6 hilabete edo gehiagoko kontratuak jasoko dituzte laguntzak soilik. Edonola ere, gutxienez lanaldiko %50 bete beharko dute.

Adierazitako kontratu horiek 2018ko ekainaren 21etik 2019ko apirilaren 1a bitartean formalizatu beharko dira, eta laguntza jasoko duten kontratazio-aldiak 2019ko ekainaren 30ean bukatuko dira.

3. Aurrekontu-zuzkidura

Esleitutako gehienezko aurrekontu-zuzkidura ehun eta hogeita hamahiru mila hirurehun eta hogeita hamazortzi euro eta hogeita hiru zentimokoa (133.338,23 euro) da, eta honako kontu-sail honetan kargatuko da: 3/24100/480.05.00.

Aurreikusitako laguntzen gehienekoa albo batera utzita, azkenean emango den kopurua gutxitu egin ahal izango da emakumeak kontratatzeako eskari-kopuruaren arabera. Edonola ere, laguntza hauen esparruko Lanbideren - Euskal Enplegu Zerbitzua- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzei zuzendutako deialdian zehazten diren portzentajeak bete beharko dira. Hala, gutxienez, diru-laguntza jasoko duten kontratazioetako langabe guztien %40 emakumeak izan beharko dira, kontratazioari zuzendutako laguntzen proiektuan kontratazioetarako aurreikusitako kopuru osoaren arabera.



4. Onuradunak

Kontratutako pertsonen honako baldintzetako bat bete beharko dute:

- Langabetuak izatea eta Santurtzin erroldatuta egotea eta hala jarraitzea. Horrez gain, Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaille bezala izena emanda egon beharko dira gutxienez kontratazioa hasi aurretiko epean.
- Langabetuak izatea eta Santurtzin erroldatuta egotea eta hala jarraitzea. Horrez gain, Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaille bezala izena emanda egon beharko dira gutxienez kontratazioa hasi aurretiko epean eta talde hauetako batean egon beharko dira: DSBEn jasotzaile titularrak, lehenengo enplegua duten 35 urte baino gutxiago dituztenak edo epe luzean langabe daudenak eta 55 urte baino gehiagoko pertsonak.
- Inolaz ere ez dute diru-laguntzarik jasoko enpresariak edo enpresako kontrola dutenek, zuzendaritzako karguek edo sozietatearen izaera juridikoa duten enpresako administrazio organoko kideek eta horien ezkontideek, ondorengoek eta odolkidetasuna edo ahaidetasuna dutenek, bigarren mailako harremanak barne.

5. Enpresa onuradunak

Pertsona fisiko edo juridiko guztiak, izaera juridikoa kontuan hartu gabe eta deialdi honetan araututako baldintza guztiak betetzen dituztenak; baldintza horien artean daude honakoak:

- Legez eraruta egotea eta egoitza soziala Santurtzin izatea, edo egoitza soziala Santurtzin izan ezean, udalerrian lanerako zentro bat izatea.
- Zerga-betebeharrei dagokienez Gizarte Segurantzaren eta Ogasunean kotizazioen ordainketan egunean egotea.
- Santurtziko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Modu penalean eta administrazio-moduan zigorrik ez izatea eta horien ondorioz diru-laguntzarik edo laguntza publikorik jaso ez izateko egoeran ez egotea eta ez egotea diru-laguntzak jasotzea galarazten duen legezko debeku baten barne ere. Horien barne sartzen dira sexu-arrazoiengatiko diskriminazio-kasuak, Gizonen eta Emakumeen Berrintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat eginez.
- Laguntzak emateko eta hala badagokio horiek ordaintzeko, bukatuta egon beharko dira Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere organismo autonomoek edo Santurtziko Udalak eta bere organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen itzulketa- edo zehapen-prozedura guztiak.

Ezin izango dituzte laguntza hauek jaso honakoak:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean dauden enpresa edo erakunde eskatzailleak.
- Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horiei lotuta edo horien menpe dauden erakundeak.
- Diru-irabazi asmorik gabeko erakundeak
- Enplegurako zentro bereziak.

Baldintza hauek bete egin beharko dira erakunde onuradunek oinarri hauek arautzen dituen laguntza-proiektuan parte hartzen duten denbora osoan.

6. Kontratazio-mota

Kontratuen gutxienerako iraupena 3 hilabetekoa izango da edozein motakoak direla ere, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuak salbuetsiz. Hala, kontratuek gutxienez lanaldiko %50 bete beharko dute.

Kontratuen iraupena zenbatzeko kontuan hartuko dira kontratuen luzapenak, betiere hasierako kontratua gutxienez 3 hilabetekoa baldin bada.

Kontratazioarekin edo kontratazioekin enpresako batez besteko plantilla osoa garbi osatu beharko da kontratatutako pertsonak lanean hasi baino 3 hilabete aurretik.

Kasu bakoitzean eskatutako edo diruz lagundutako epearen aurretik lan-kontratuak bukatzen baldin badira emandako diru-laguntza itzuli egingo da, kontratuak erakunde kontrata-



tzaileak nahi gabe bukatu diren kasuetan salbu. Hala, egoera horietan diru-laguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, lan-kontratuaren iraupen eraginkorrarekiko proportzioan. Inguruabar hori dokumentatu eta aurretik jakinarazi beharko da.

Azken kasu horretan, enpresak diru-laguntza jasotako kontratazioa bukatuko den epera arte ordezkapena egin beharko du eta horretarako, hasieran kontratatutako pertsonaren ordezkoa kontratatu beharko du. Hala, kontratuaren baldintza eta ezaugarriak berdinak izan beharko dira, baita laguntza emandako pertsonaren baldintzak ere, betiere ordezkapena lehenbailehen egiten baldin bada, gehienez ere hurrengo egunean.

7. Enplegurako laguntza ekonomikoen tipologia

- A) Udalerriko langabetuak diren eta Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaile bezala izena emanda dauden pertsonen kontratazioari dagokionez:

Gehienez ere 3.000 euroko laguntza lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, eta gehienez ere 6.000 euroko diru-laguntza lanaldi osoko eta sei hilabete edo gehiagoko iraupena duen kontratu bakoitzeko.

Lanaldi partzialeko kontratazioetan %50 gutxienez, edo hiru edo sei hilabeteko iraupenagatik, diru-laguntza lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Lehenago aurreikusitako Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaile diren udalerriko langabetuen kontratazioari dagokionez, enpresak jasoko duen laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan soldaten eta Gizarte Segurantzaren kostuen %75 baino gehiago, kontratatutako kalte-ordainak barne. Horiek guztiak iraupen eta lanaldiko 3tik 6 hilabetera arteko epeak kontuan hartuz kalkulatu dira, enpresa kontratatzaileak duen aplikazio-hitzarmenarekin bat eginez.

- B) Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaileak eta udalerriko langabetuak diren talde hauetako pertsonen kontratazioari dagokionez:

— DSBEn jasotzaile titularrak.

— 35 urte baino gutxiago dituztenak.

— Epe luzeko langabetuak. Epe luzeko langabetuak Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— kontratazioaren aurretiko 18 hilabeteetan enplegu-eskatzaile bezala izena emanda daudenak dira, betiere aldi horretan langabe egon direnean gutxienez 12 hilabete zehar.

— 55 urte baino gehiago dituztenak.

Gehienez ere 4.500 euroko laguntza lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, eta gehienez ere 9.000 euroko diru-laguntza lanaldi osoko eta sei hilabete edo gehiagoko iraupena duen kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialen kontratazioan, gutxienez %50 edo hiru eta sei hilabeteko iraupenagatik, diru-laguntza lanaldi eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Lanbiden —Euskal Enplegu Zerbitzua— lan-eskatzaileak eta udalerriko langabetuak diren talde hauetako pertsonen kontratazioari dagokionez: DSBEn jasotzaile titularrak, 35 urte baino gutxiago dutenak edo epe luzeko langabetuak eta 55 urte baino gehiago dituztenak. Jasoko den azkeneko kopurua ezin izango da izan soldaten eta Gizarte Segurantzaren kostuen %100 baino gehiagokoa, kontratatutako kontratu bukaeragatik kalte-ordainak barne. Horiek guztiak iraupen eta lanaldiko 3tik 6 hilabetera arteko epeak kontuan hartuz kalkulatu dira, enpresa kontratatzaileak duen aplikazio-hitzarmenarekin bat eginez.

- C) A eta B kontratazioetako kasu biak gertatzen baldin badira, gutxienez diru-laguntza jasoko duten kontratazio guztien %40 emakumeei egindako kontratazioak izan beharko dira, Kontratazioetarako laguntzen proiektuan aurreikusitako kopuru osoaren arabera.

**8. Eskaerak aurkezteko lekua**

Eskaerak Santurtziko HAZ bulegoan aurkeztu beharko dira, helbide honetan: Murrleta etorbidea 6, 48980, Santurtzi. Hala, eskaria aurkeztean honako oinarrien edukia onetsi egin dela ulertuzat emango da.

Oinarri hauek www.santurtzi.eus webgunean, Santurtziko HAZ bulegoan eta SanturtziLan-en (Itsasalde, 26) eskuragarri egongo dira.

9. Aurretiazko dokumentazioa

Laguntza-eskaerak horretarako ezarritako eskaera-ereduaren arabera aurkeztuko dira; eredu hori oinarri hauen eranskina da. Eskaerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

9.1. Enpresa/erakunde eskatzaileei buruzko dokumentazioa

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa baldin bada, hauek: Nortasun Agiri Nazionalaren/ AIZren eta IFZren fotokopia.
- b) Eskatzailea pertsona juridikoa baldin bada: Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, NANA eta eskariaren eskatzailea edo sinatzailea ordezkatzeko boterea. IFKren fotokopia eta enpresa edo erakundearen eraketa-eskriturak. Eskrituren aldaketak eta dagozkion erregistroetan egindako izen-emateak. Izaera juridiko propiorik ez duten sozietate zibilak baldin badira, dagokion Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua aurkeztu beharko da.
- c) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoenaren ziurtagiria, dagokion Ogasunak emandakoa, eta zerga horren azken ordainagiriaren fotokopia, erakundeak zerga horri lotutako jarduerak gauzatzen dituenean. Ordaintzetik salbuetsita baldin badaude, hori egiaztatu egin beharko da erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez.
- d) Enpresa edo erakundea Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoenaren kopia.
- e) Jatorrizko erantzukizunpeko adierazpena, sinatuta: (Eskaera-ereduaren I. eranskina):
 - Ez dagoela diru-laguntza publikoen itzulketa- edo zehapen-prozeduren barne.
 - Modu penalean eta administrazio-moduan zigorrik ez izatea eta horien ondorioz diru-laguntzarik edo laguntza publikorik jaso ezin izateko egoeran ez egoetea, diru-laguntzak jasotzea galarazten duen legezko debekuak barne. Horien barne sartzen dira sexu-arrazoiengatiko diskriminazio-kasuak, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat eginez.
 - Ordezkatzen duen enpresak eskatutako baldintzak bete behar ditu eta ez da egon behar Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legearen 13. artikuluan jasotzen diren egoeren barne; egoera horiek onuradun izaera lortzea debekatzen dute.
- f) Dagokion Ogasunaren eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiri eguneratuak, horiekiko betebeharrak egunean daudela egiaztatzen dutenak.
- g) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, diru-laguntza jasoko duen kontratazioa hasi aurretiko 3 hilabeteetako plantillaren batez besteko kopurua adierazten duena.
- h) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria, diru-laguntza jasoko duen kontratazioa hastean plantillaren batez besteko kopurua adierazten duena.
- i) Hirugarrenen alta-agiriak, dagokion erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatuta eta zigilatuta (Eskaera-ereduaren II. eranskina).

Ofizios egiaztatuko da erakunde eskatzailea Santurtziko Udalarekiko zerga-betebeharrekin egunean dagoela.

**9.2. Kontratutako pertsonen eta kontratazioari buruzko dokumentazioa**

- a) Kontratua egingo zaion pertsonaren NANaren/AIZren zenbakia.
- b) Lanbiden altan emanda dagoenaren eta eskaria berri denaren agiri eguneratua (Darde).
- c) Lanbidek emandako ziurtagiri eguneratua, izena emanda egon den aldiak eta langabe egoeran egon izana adierazten dituenak.
- d) Lan-bizitza eguneratua.
- e) Lanbidek emandako ziurtagiria, DSBEn jasotzailea izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duena.
- f) Egingo den kontratuaren datuak biltzen dituen agiria, berariaz adieraziz kontratuaren iraupena eta lanaldia, aplikatuko den hitzarmena eta soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak (Eskaera-ereduaren III. eranskina).
- g) Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia, organismo eskumendunak zigilatutakoa.
- h) Kontratutako pertsona Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean altan emanda dagoenaren kopia.
- i) Jatorrizko erantzukizunpeko adierazpen bakarra, sinatuta: (Eskaera-ereduaren I. eranskina):
 - Kontratazioarako laguntzak eskatzen diren pertsonak ez dira izango enpresariak edo enpresako kontrola dutenak, zuzendaritzako karguak edo sozietatearen izaera juridikoa duten enpresako administrazio organoko kideak eta horien ezkontideak, ondorengoak eta odolkidetasuna edo ahaidetasuna dutenak, bigarren mailako harremanak barne.
 - Diru-laguntzak eskatuko diren kontratazioarekin edo kontratazioekin enpresako batez besteko plantilla osoa garbi osatu beharko da kontratatutako pertsonak lanean hasi baino hiru hilabete lehenago.
 - Kontratazioak eskaeran jasotako terminoekin bat eginez gauzatuko dituela adierazten du, indarrean dagoen lan-araudia beteko duela, baita aplikatu beharreko laneko arriskuak prebenitzeko indarrean dagoen araudia ere.
 - Beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen diru-laguntzarik edo laguntza pribaturik ez duela jasotzen kontzeptu edo xede bererako. (Hori horrela ez bada, jasotako edo eskatutako laguntzei buruzko adierazpena aurkeztu beharko du).
 - Laguntzak eskatuko dituzten kontratazioak edo kontratazioek orain ez dutela eta etorkizunean ez dutela izango gehiegizko finantzaziorik, edozein arrazoi dela-eta.

Tokiko administrazio honek ofizios egiaztatuko du kontratua egingo zaion pertsona udalerrian erroldatuta dagoela eta bertan erroldatuta jarraitzen duela gutxienez kontratazioa hasi aurretik.

10. Aurkezteko eta ebazpena emateko epeak

Eskariak aurkezteko epea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da eta 2019ko apirilaren 5ean bukatuko da. Hala, ulertutzat emango da 2019ko ekainaren 30a ondorengo kontratazio-aldiek ez dutela diru-laguntzarik jasoko, ezta ezarritako epez kanpo aurkezten diren eskariak ere.

Eskariak termino guztietan bete gabe aurkezten baldin badira edo aurretiazko dokumentaziorik aurkezten ez baldin bada, erakunde eskatzaileak hamar egun balioduneko epean akatsak zuzendu edo eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Hala egingen ez baldin badu, eskaria baztertu egingo da, eskari horri buruzko berariazko ebazpena emango da eta ebazpen hori jakinaraziko da.



Ebazpena emateko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da eskariak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe hori betetzeko ezi-nezkotasuna justifikatzen duen arrazoirik egon ezean. Kasu horretan, ahalik eta epe laburrenean egin beharko da.

Diru-laguntza jasoko duten kontratazioak 2018ko ekainaren 21 eta 2019ko apirilak 1 artean hasita egon ahal izango dira, eta edonola ere 2019ko ekainak 30 (laguntza jasotzeko kontratazio-aldia) aurretik bukatu beharko dira. Hala, kontuan hartuko dira eskutatako gutxieneko kontratazio-aldiak eta diru-laguntza jaso dezaketanak, oinarri hauetako 7. puntuan ezarritako inguruabarretan.

11. Prozedura

Laguntzak emateko araubide erregulatzailan taldeei dagokienez ezarritako gutxieneko portzentajeen klausulan adierazitakoa betetzen dela egiaztatutako da. Talde horiek emakumeak eta 55 urtetik gorakoak dira, eta hori guztia egingo da aurreikusitako kontratazio-kopuruak emakumeen gutxieneko %40ko, 2018ko ekainaren 13ko Ebazpenean ezarri bezala. Hala, eskariak udal honetako Erregistro Orokorrean sartu direneko ordena zehatz-mehatz beteko da.

12. Prozedura instruitzeko eta ebazteko organo eskumenduna

Prozedura ebazteko organo eskumenduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da. Hala, aurretiaz baldintzak eta irizpideak betetzen direla baliozkotu eta egiaztatu ondoren, laguntzak emango ditu araubide erregulatzailan taldeei dagokienez ezarritako gutxieneko portzentajeen klausulan adierazitakoa betetzen dela egiaztatuz. Talde horiek emakumeak eta 55 urtetik gorakoak dira, eta eskarien sartzeko-ordena guztiz errespetatuko da. Hala, ordena hori Lanbidek —Euskal Enplegu Zerbitzua— eskutatako gutxieneko portzentajeen betetzearen menpe, esleitutako gehieneko aurrekontuaren menpe, eta hala badagokio, esleitutako aurrekontu-zuzkidura amaitzearen menpe egongo da.

13. Errekurtsoak

Diru-laguntzak emateko ebazpena egin ondoren administrazio-bidea bukatu egingo da eta ebazpen horren aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita hilabeteko epean eta ebazpena eman zuen organoaren aurrean. Horrez gain, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da 2 hilabeteko epean eskualde honetako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

14. Diru-laguntzaren justifikazioa eta ordainketa

Diru-laguntza jasoko duen kopuruaren %100 ordainduko da kontratu bakoitzaren aurretik erakunde/enpresa onuradunak justifikazio-eredua (oinarri hauen eranskina) eta dokumentazio hau aurkeztutakoan:

- a) Soldatak ordaindu izanaren ziurtagiria eta diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eskatutako gutxieneko epean eta diru-laguntzaren xedean.
- b) Dagokion Ogasunaren eguneratutako ziurtagiriak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrenak, horien betebeharrak egunean dagoela adierazten dutenak.
- c) Diru-laguntza jasoko duten gutxieneko kontratazio-aldietako TC1 eta TC2.
- d) Jatorrizko erantzukizunpeko adierazpena, sinatuta: (Justifikazio-ereduaren I. eranskina).

Justifikazioa eta gainontzeko dokumentazioa Santurtziko HAZ bulegoan (Murrieta etorbidea, 6, 48980-Santurtzi) aurkeztu behar da gehienez hilabete bateko epean, ekin-tza diruz lagundu denetik hasita. Ezin izango da inolaz ere aurkeztu 2019ko uztailaren 31ren ostean.

**15. Beste laguntza edo diru-laguntza batzuekiko aldiberekotasuna**

Diru-laguntzak ez dira bateragarriak kontzeptu eta xede berearekin beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako zerga-hobariak salbu.

16. Diru-laguntza aldatzea

Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein baldintza aldatzen baldin bada emandako diru-laguntza ere aldatu egingo da, betiere diru-laguntza emateko irizpideak mantentzen baldin badira.

17. Ez-betetzeak

Orokorrean, enpresak berak edo enpresak kontratatutako pertsonak edozein baldintza betetzen ez baldin badu eta udalak jaso beharreko eta Lanbidek emandako diru-laguntza murrizten baldin bada, laguntzaren jasotzaileak jasotako kopurua modu proportzionatuan murriztuko da, eta hala badagokio, dagozkion jasotako zenbatekoak eta legezko interesak itzuliko zaizkio.

18. Datu pertsonalen babesa

Diru-laguntzarako eskaera-orria aurkeztuta, erakunde eskatzaileak baimen ematen du, bai eta adierazi ere, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete eta horren termino guztiak onartzen dituela oso-osorik.

Horrez gain, adierazten du eskaera-orrian dauden datu pertsonalak bere baimenpean jaso direla, bai eta onartu egiten duela ere datuok tratatzea eta Udal honek, zeinen udaletxea Murrieta etor. 6 (48980-Santurtzi) helbidean dagoen (telefonoa: 944 205 800, helbide elektronikoa: sac@santurtzi.eus eta IFK: P4809500D), behar bezala baimentzen dituen tratamenduetan sartzea. Gainera, baimen ematen du datuok lan-merkatuan bitartekaritza lana egin, enpresa eta erakunde sortu berriei zerbitzua eman, herritarrei prestakuntza eta orientazioa eman eta udalerriko biztanleen zuzeneko kontratazioa egiteko helburuz erabil daitezen, beroriek beste Herri Administrazio, beren organismo eta erakunde pribatuei laga eta jakinarazi ahal izango zaizkielarik aurreikusitako kasuetan.

Interesdunek datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, mugatu, eraman eta horiei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte legean aurreikusten den moduan Santurtziko Udalari idatziz eskatuz (Murrieta etorbidea, 6, 48980-Santurtzi). Informazio gehiagorako honako hauetara jo:

- Webgunean: <http://www.santurtzi.net/es-ES/Institucional/Paginas/politica-privacidad.aspx>
- Telefonoa: 944 205 800.

Santurtzin, 2019ko urtarrilaren 11n.— Alkatea, Aintzane Urkijo Sagredo

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA-ESKAERA, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO
EKINTZETARAKO LAGUNTZA-DEIALDIAREN ESPARRUAN****1. Legezko ordezkariaren eta erakunde eskatzailearen identifikazio-datuak**

Izen-abizenak:	NAN:
Hurrengo honen izenean: Enpresa edo erakundearen izen soziala:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Enpresa edo erakundearen helbide soziala

Kalea eta zk.:		
Udalerria:	PK:	Telefonoa:
E-posta:	Faxa:	http://

*Helbide osoa jakinarazpenetarako
(Aurrekoa ez baldin bada bakarrik beteko da)*

Izena:		
Kalea eta zk.:	Udalerria:	KP:
E-posta:	Telefonoa:	Faxa:

Enpresaren jarduera

JEZ Nagusia:	Alta-eguna:
Deskribapena:	

Erakundeak ez badu nortasun juridiko propioirik, justifikazioa erakundearen kide guztiek sinatu behar-ko dute, sinadura bakoitzaren azpian sinatzailearen izen-abizenak letra larriz agertu beharko direlarik.



2. Diru-laguntzaren xede diren kontratazioei buruzko informazioa

Izen-abizenak:	NAN:
Hurrengo honen izenean: Enpresa edo erakundearen izen soziala:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Diru-laguntza eskatzen du Santurtzin erroldatutako langabe egoeran dauden hurrengo herritarren kontrataziorako

- Markatu kontratatutakoa emakumezkoa bada.
- Markatu kontratatutakoa 55 urtetik gorakoa bada.

Izen-abizenak:	NAN:
Lanpostua (lan-kontratuan agertzen den berbera izan behar da):	
<i>Kontratuaren datuak:</i> Kontratu mota: Hasiera data: Amaiera data: Jarduera-sektorea:	<i>Jardunaldi mota:</i> <input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Partziala (adierazi):

- Markatu kontratatutakoa emakumezkoa bada.
- Markatu kontratatutakoa 55 urtetik gorakoa bada.

Izen-abizenak:	NAN:
Lanpostua (lan-kontratuan agertzen den berbera izan behar da):	
<i>Kontratuaren datuak:</i> Kontratu mota: Hasiera data: Amaiera data: Jarduera-sektorea:	<i>Jardunaldi mota:</i> <input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Partziala (adierazi):

- Markatu kontratatutakoa emakumezkoa bada.
- Markatu kontratatutakoa 55 urtetik gorakoa bada.

Izen-abizenak:	NAN:
Lanpostua (lan-kontratuan agertzen den berbera izan behar da):	
<i>Kontratuaren datuak:</i> Kontratu mota: Hasiera data: Amaiera data: Jarduera-sektorea:	<i>Jardunaldi mota:</i> <input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Partziala (adierazi):



- Markatu kontratatutakoa emakumezkoa bada.
- Markatu kontratatutakoa 55 urtetik gorakoa bada.

Izen-abizenak:	NAN:
Lanpostua (lan-kontratuan agertzen den berbera izan behar da):	
<i>Kontratuaren datuak:</i> Kontratu mota: Hasiera data: Amaiera data: Jarduera-sektorea:	<i>Jardunaldi mota:</i> <input type="checkbox"/> Osoa <input type="checkbox"/> Partziala (adierazi):

3. Dokumentazio osagarria

3.1. *Enpresa/erakunde eskatzaileak aurkeztu beharrekoa:*

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada: IFZ/Nortasun Agiriaren eta IFZren fotokopia..
- Pertsona juridikoen kasuan: identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiriaren fotokopiarekin batera eta sinatzen duen pertsonaren ordezkaritza-ahalmenak.
IFKren fotokopia eta erakundea edo enpresaren eraketa-eskrituren fotokopia, ondoren izandako aldaketa eta guzti, eta dagokion erregistroetako inskripzioa.
Berezko nortasun juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, dagokion Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua gehituko da.
- Dagokion Ogasun Sailak egindako agiria, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela ziurtatuz eta aipatutako zerga ordainduta duelako azken erreziboa, baldin eta erakundeak horrekin lotutako jarduerak burutzen baditu. Ordaintzetik salbuetsita badago, berriz, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatu beharko da.
- Enpresa edo erakundea Gizarte Segurantzaren alta emanda dagoela ziurtatzen duen kopia.
- Bere zerga betebeharrak eguneratuta dauzkala ziurtatzen duten Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren agiri eguneratuak.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak luzatutako egiaztagiria, laguntza eskaeraren xede den kontratazioaren aurreko hiru hiletako plantillaren batz besteko langile-kopuruaren berri emanez.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak luzatutako egiaztagiria laguntza eskaeraren xede den kontratazioa hasi zen eguneko plantillaren batz besteko langile-kopuruaren berri emanez.
- Hirugarrenen altaren agiria, dagozkion erakunde eskatzaile eta bankuak sinatu eta zigilatua (Eskaera ereduaren II.eranskina).
- Erantzukizunpeko adierazpena sinatua (Eskaera ereduaren I. eranskina).

3.2. *Kontratatutako denak/direnek aurkeztu beharreko dokumentazioa eta kontratazioarekin lotutakoa*

- Kontratuaren xede den pertsonaren NAN/AIZ
- Lanbideren alta eta lan-eskaera berritu duelako agiri eguneratua.
- Lanbideren ziurtagiri eguneratua, izen emanda egon deneko aldiak eta langabetu egoeran dagoela adieraziz (bitartekaritza adun alta).
- Lan bitzita eguneratua.
- DBE jasotzen ari dela adierazten duen Lanbideren ziurtagiria, hala badagokio.
- Egin beharreko kontratuaren datuak dituen agiria, non beren-beregi adieraziko den zein iraupen eta jardunaldi-mota dituen, eta ezarri beharreko hitzarmena zein lan-sari eta gizarte-segurantzako kostua zein diren (Eskaera ereduaren 3.eranskina).



- g) Diruz lagunduko den lan-kontratuaren kopia, eskumendun erakundeak sinatuta.
- h) Kontratatutako pertsona Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda dagoela adierazten duen agiriaren kopia.
- i) Erantzukizuneko jatorrizko adierazpen bakarra sinatua (Eskaeraren ereduaren 1. eranskina).

Santurtzin, 20...ko(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

Eskabideak aurkezteko tokia eta epea

Eskabideak eta gainerako agiriak HAZ bulegoan aurkeztuko dira (Murrieta etorbidea, 6, 48980-Santurtzi).

Aurkezteko epea 2019ko apirilaren 5ean amaituko da.



1. ERANSKINA

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA ESKAERA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
(Erakundearen lege-ordezkarri bakoitzak bete eta eman beharrekoa)**

Izen-abizenak:	NAN:
Hurrengo honen izenean: Enpresa edo erakundearen izen soziala:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Hurrengo hau adierazten du (bere erantzukizunpean):

- Honako eskabide honetan agertu dituen datuak benetakoak direla, bai eta berarekin batera dagoen dokumentazioan agertu dituenak ere.
- Honako deialdi honen oinarrietan eskatzen diren baldintza eta betebeharrak ezagutu eta onartu egiten dituela.
- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela diru-laguntza publikoen esparruan itzultzeko edo zehapeneko prozesuan sartuta.
- Ordezkatzen duen enpresak ez duela zigor eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik jaso, eta ez dagoela horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuen eraginpean barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 2005/4 Legearekin bat etorriz.
- Ordezkatzen duen enpresak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela eta ez dagoela Diru-laguntzei buruzko 2003/38 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izatea eragozten duten egoeraren baten eraginpean ere.
- Ordezkatzen duen enpresak ez duela beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu baten kontzeptu edo xede berberapean emandako diru-laguntza edo laguntza pribaturik eskatu eta jaso (Bestela, eskatu edo jasotako laguntzen zerrenda duen adierazpena aurkeztu beharko du).
- Diru-laguntzaren xede diren kontratazioekin lotuta, ez dagoela eta ez dela inola ere gainfinantzetarik egongo.
- Konpromisoa hartzen duela Udal honi adierazpen honen helburu diren alderdiekin lotutako edozein gorabehera jakinarazi eta idatziz adierazteko.
- Herritarrak, zeinen kontratazioarako diru-laguntza eskatzen den, ez direla ez enpresaburuak, ez enpresaren kontrol-dun edo zuzendaritza kargudunak, ez enpresa eskatzailearen administrazio kontseiluko kideak, ez eta aurreko horien ezkontide, ondorengo ahaide eta 2. mailarainoko (hori barne) odol-ahaidetasun harreman edo afinitaterik duten senideak ere.
- Kontratazioak/ek, zeinetarako diru-laguntzak eskatu diren, nahitaez ekarriko duela/dutela enpleguaren sorkuntza garbia egotea enpresan kontratatutakoak lanean hasi aurreko hiru hiletan zegoen plantillaren batz besteko langile-kopuruan.
- Konpromisoa hartzen duela kontratazioa eta indarreko lan-araudia zein lan-arriskuak prebenitzeko ezarri beharreko araudia eskabide honetan jasotako terminoetan burutzeko.

Santurtzin, 20...ko(a)ren ...(e)(a)n.

Legezko ordezkarriaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua



II. ERANSKINA / ANEXO II

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA ESKAERA: HIRUGARREN ALTA
A LA SOLICITUD DE AYUDAS A LA CONTRATACIÓN: ALTA DE TERCEROS

Hirugarrenaren alta / Alta de tercero

A Hirugarrenaren identifikazio-datuak / Datos identificativos del tercero	
NAN/AIZ/IFZ / DNI/NIE/NIF:	
Izena eta abizenak / Sozietatearen izena / Nombre y apellidos / Razón social:	
Helbidea / Domicilio:	
Herra / Población:	PK / CP:
Lurraldea / Provincia:	Herrialdea / País:

B Bankuaren datuak / Datos bancarios	
IBAN <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	
Jabea / Titular:	

Oharra: Kontu korrontearen titularrak doakion hirugarrena bera behar du izan.
Nota: El titular de la cuenta bancaria tiene que ser el mismo tercero interesado.

<p>Bankuaren adostasuna Conforme banco</p> <p>Sinadura eta zigilua Sello y firma</p>
--

<p>Doakion hirugarrenaren adostasuna Conforme tercero interesado</p> <p>Sinadura eta zigilua Sello y firma</p>
--

<p>Sail edo Erakundearen onespena V.º B.º Dpto. u Organismo</p> <p>Baimendutako sinadura eta zigilua Sello y firma autorizada</p>

Data / Fecha ... / ... / ...



3. ERANSKINA

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA ESKAERA:**Burutuko den kontratuaren datuak, iraupena eta lanaldia, aplikatuko den hitzarmena, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak berariaz azaldurik**

Enpresa edo erakunde eskatzailea	Langile onuradunaren izen-abizenak	Kontratazioa justifikatzeko epea	
		Noiztik	Noiz arte

Kontratuaren kodea	Lanaldiaren %	Aplikatu beharreko hitzarmena	Diruz lagunduko den aldiko soldata-kostua	Diruz lagunduko den aldiko gizarte segurantzaren enpresaren kostu osoa

Santurtzin, 20...ko(a)ren ...(e)(a)n.
Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

**KONTRATAZIORAKO DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIO-EREDUA**

Izen-abizenak:	NAN:
Noren ordez: Enpresa edo erakundearen izen soziala:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Langile honen kontratazio subentzionatua

Izen-abizenak:	NAN:
----------------	------

Enpresak aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Ordainsariak ordaindu direlako egiaztagiria eta eskatutako gutxieneko epealdian diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia.
- Betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Foru Ogasunaren eta Giza Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak.
- Eskatutako eta diruz lagundutako gutxieneko epealdien TC1 eta TC2.
- Justifikazioarekin batera, eguneratutako zinpeko aitortpena.

Santurtzin, 20...ko(a)ren ...(e)(a)n.
Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua

Berezko nortasun juridikoa ez duten erakundeen kasuan, erakundea osaten duten kide guztien sinadura behar da, sinaduraren azpian izen-abizenak letra larriz idatziko direlarik

Justifikazioak aurkezteko lekua eta epea

Justifikazioa eta gainontzeko dokumentazioa Santurtziko HAZ bulegoan (Murrieta etorbidea, 6, 48980-Santurtzi) aurkeztu behar da gehienez hilabete bateko epean, ekintza diruz lagundu denetik hasita. Ezin izango da inolaz ere aurkeztu 2019ko uztailaren 31ren ostean.

**KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA JUSTIFIKAZIOAREN ERANSKINA 1: ZINPEKO AITORPENAK/K**
(Enpresa/erakundeko legezko ordezkari bakoitzeko bat entregatu behar da)

Izen-abizenak:	NAN:
Noren ordezkari: Enpresa edo erakundearen izen soziala:	
Izen komertziala:	IFZ/IFK:

Hau adierazten du (bere erantzukizunpean)

- Egiazkoak direla eskaera honetan agertzen diren datu guztiak eta erantsi diren agiriak ere bai.
- Deialdi honetako oinarrietan eskatzen diren baldintzak eta betebeharrak ezagutu eta onartzen dituela.
- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zigor-prozeduretan sartuta ez egotearena.
- Ordezkatzen duen enpresa ez dagoela zigortuta, ez penalki ez administratiboki, subentzio eta diru-laguntza publikoak galtzeko aukerarekin, ezta laguntzak jasotzeko desgaituko lukeen lege-debeku batean sartuta, sexu arrazoiengatik bazterkeriagatik gertatu litezkeenetan barne, Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.
- Ordezkatzen duen enpresak eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta onuradun izatea galeraziko liokeen Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasota dauden ezelako inguruabarretan ez dagoela.
- Ordezkatzen duen enpresak ez duela eskatu ez eskuratu beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batetik subentzio edo laguntza pribaturik kontzeptu edo helburu bererako. (Hala ez balitz, aitortzen bat aurkeztu beharko du eskuratutako edo eskatutako laguntzen zerrendarekin).
- Ezelako arrazoiengatik ez dela gainfinantzaiziorik existitzen edo existituko laguntzak eskatzen diren kontratazioarentzat /kontratazioentzat.
- Konpromisoa hartzen du Udalarri idatziz informatzeko eta aitortzeko adierazpen honetako edozein konturekin zerikusia duen edozein gorabeheraz.
- Laguntza eskatzen deneko kontratazioko pertsonak ez direla enpresariaren edo enpresaren kontrola dutenen, zuzendaritza karguak dituztenen edo administrazio organoetako kideak direnen ezkontideak, ondorengoak edo bigarren mailarainoko odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak, eta ez direla aipatutako pertsonak.
- Laguntzak eskatzen direneko kontratazioa/k enplegu sorrera garbia suposatzen dutela diruz laguntzen den kontratuko pertsona/k sartu baino hiru hilabete lehenago enpresan zegoen batez besteko plantilla osoarekiko.
- Konpromisoa hartzen dutela kontratazioa/k aipatu eskaeran jasotako terminoetan burutzeko eta indarreko lan arautegia zein aplikatu beharreko lan arriskuak prebenitzeko arautegia betetzeko.

Santurtzin, 20...ko(a)ren ...(e)(a)n.
Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresa edo erakundearen zigilua